



Larratxoko jaietako holi festa, iaz.

Larratxo edo Hawaii... festa giroaz, musika onaz eta kolorez blai!

Ekainaren 3an hasiko dira, ofizialki, Larratxoko jaiak. Hala ere, aste-buru honetan bertan hasiko dira motorrak berotzen. Musika izango da aurtengo egitarauko apusturik handiena, eta urduritasuna ere nabari da, dagoeneko, auzoko kaleetan barrena.

📍 Nagore Garmendia Artano
📷 Maitane Aldanondo Gabilondo

Badatoz kolore festa, mariatxien doinuak, bazkari herrikoiak eta buruhandi eta erraldaien bisitak. Gaur hasiko dira Larratxon jaietarako motorrak berotzen, festa giroan erabat murgildu baino lehen.

Oso egitarau zabala prestatu dute, urtero bezala. Neke tonuarekin kontatu du hori jai batzordeko Naiara Crujeirasek; izan ere, oso gutxi dira

antolaketa taldean, hamar bat, eta jaietan haizea hartzeko denborarik ere ez duten arren, betiko tradizioa da, beste gauza batzuen artean, orduero egitarauan zerbait egotea.

Auzotarren eskuzabaltasuna

Gutxi dira, bai, baina ez zaie auzotarren laguntza falta, eta Crujeirasek auzoko gazteen laguntza azpimarratu

nahi izan du; izan ere, ofizialki jai batzordearen parte ez badira ere, beraiek arduratzen dira jaiak girotuko dituzten kontzertuak pentsatu eta kudeatzeaz. Jai batzordetik asko eskertzen dute hori, «ez dakitelako zein musika mota entzuten den, gaur egun».

Kontzertu potenteak

Aurtengo apusturik handiena, hala, kontzertuetan egin dute larratxotarrak: «Beti genbiltzan pausoa eman nahian, eta apustua aurtan egin dugu»; izan ere, eta gazteek hala eskatuta, Bengo abeslari oiartzuarraren emanaldia izango dute, baita Jime rap abeslari madrildarrarena ere. Crujeirasek azaldu duenez, auzoa aztoratuta ibili zen, aurtengo kontzertuetako kartela atera zutenean.

Bi eszenatoki jartzen dituzte; bat plazan, eta bestea patioan. Batean «patxangeoa» eta bestean gazteen-tzako doinuak. Hala ere, mariatxiak izaten dira jaietako gozatuenak. Jaiari amaiera emateko eskaintzen dute emanaldia, eta bereziki gustuko dituzte auzotarrek.

Agerikoa denez, berrikuntza guztiek dakarte musika, aurten; eta, gainera, beti dute mozorrotzeko aitzakia bat: «Iaz, karroza pirata egin genuen; aurten kalejira hawaiarra!». Modu berean ez, baina oso antzekoan, giro udatiarrean hartuko dituzte auzoko kaleak, Ilargi txarangaz lagunduta.

Motorrak berotzea

Jaiak ofizialki ekainaren 3an hasiko diren arren, gaurtik bertatik egongo dira jarduerak Larratxon; Sagardo Eguna izaten da berezietakoa, eta iaiztik, jaien aurreko larunbatean egiten dute, «motorrak berotzeko». Izan ere, egitarauan jarduera gehiago sartzea ezinezkotzat du jai batzordeak, eta hala eginda, lan karga kentzeko aukera dute.


Azken urteotan eman nahi zuten aurrerapausoari leial, kontzertuetan egin dute aurtengo jaietako apusturik handiena, larratxotarrek

Haurrak, protagonista

Hasierako txupinazoarekin batera botatzen dituzten koloretako hautsek, Holi Festak, protagonismo berezia du, urtero. Hori da hurrek gehien gozatzten dutena... buruhandiak eta erraldoiak ez daudenean. Aurten, egunero aterako dira dantzan, haurren atzetik lasterka; izan ere, ateratzen ez badira, errieta ere jasotzen du jai batzordeak, haurren partetik. Horregatik, egunero hitzorduaz gain, erraldioen topaketa egingo dute, aurten ere.

Altzalore aisialdi taldearen eskutik, gainera, haurrek jarduera berezietan disfrutatzeak aukera izango dute. Haurrek, gazteek, helduek... baita jaioberriek ere! Izan ere, 2025ko ekainetik aurtengo jaiak bitarte jaiotako hurrei, jaietako zapia jartzen diete, urtero. «Ilara egoten da!», adierazi du, barrez, Crujeirasek.

Horrek adierazten du adin guztietarako egokitutako jaiak direla Larratxokoak, eta ez dutela ondo pasatzeko denborarik galtzen. ●



OSTIRALA 29

17:15

Benjamin/kimu futsal Tximista txapelketa patioan.

LARUNBATA 30

10:00

Haurren futsal Tximista txapelketa eskolako patioan.

15:00-19:00

Finalurrekoak Irale patioan.

19:30

XIII. Sagardo eguna patioan.

OSTEGUNA 4

17:00

Haur txokolate jana plazan, Leosiñeta eta Bertsolari elkarten eskutik.

Haur futbol txapelketaren finalak Larratxoko eskolan.

17:30

Amezu Produzioak haur ikuskizuna plazan: *DJ Kaktus*.

19:00

Marrakzi lehiaketaren irabazlea, Larratxoko Jai Alkate 2025 izendatuko da. Partaide guztiak gerturatu zaitezte plazara, sorpresak egongo dira!

19:30

Txupinazoa holi festarekin eta jaietako agurra plazan.

Jarraian, erraldoi eta buruhandiak Sastakai txarangarekin, betiko ibilbidetik.

20:00

Areto futbol txapelketaren finalurrekoak, Larratxoko eskolan. Amaieran luntxa izango da partaideentzat.

20:30

Zezensuzkoa plazan.

22:30

Zarratak taldearen kontzertua, punk/rock euskaldunaren bertsioak patioan.

OSTIRALA 5

11:00

Auzoko aitona-amonentzat toka, bote eta igela Larratxoko eskolan.

17:00

Ekaina 2025-ekaina 2026 bitartean jaiotako hurrei jai zapia banatuko zaie plazan.

Ping-pong txapelketa eskolako patioan.

17:15

Entzutea Oraina. Ijitonen eskutik, entzungailu gidatuen entzunaldi topaketa, erromani herriak musika elektronikoa garaikidean duen eragina ezagutzeko. Edukiera mugatua: 25 pertsona. Eskolako ekitaldi aretoan.

17:30

Sardina Freskue haur ikuskizuna plazan, Casares Kultur Etxearen eskutik.

18:00

Pala txapelketaren finala, Txirritako Imanol Gomez frontoian.

19:00

Helduen areto futbol txapelketaren finala Broken Sneakers DJ-ak girotua, patioan. Ondoren, trofeoak banatuko dira.

Erraldoi eta buruhandiak, dultzaineroen eskutik, ohiko ibilbidetik.

20:00

Afari herrikoia Larratxoko plazan: sardina eta saiheskia.

22:30

Kontzertuak: SNKT, Unotres Mobb, Jime eta gauari amaiera emateko, Torras eta Arritrez DJ-ak.

22:30

Gauargi taldea Larratxoko plazan.

Helduen danborrada herrikoia Sastakai txarangarekin, Bertsolari Txirritatik hasita.

00:30

Zezensuzkoa Larratxoko plazan.

03:30

Gaurkoz festa amaitu da... Gauaz gozatu!

LARUNBATA 6

10:00

Diana udal txistularien eskutik.

11:00

Toka eta bote txapelketa Txirritako plazan.

Euskal dantzak Herri Ametsa ikastolako taldearen eskutik, Larratxoko plazan.

Anima zaitetz eskolako patioan zumba egitera, eta lagundu Asgincer elkarteari.

12:00

Auzoko aitona-amonentzat hamaietakoa Bella Vista zahar etxean, auzoko bazkideentzat eta erretiratuentzat soilik.

Erraldoi topaketa parketik hasita. Zatoz eta gozatu hainbat erraldoirekin!

XII. Paella Lehiaketa Larratxoko eskolan.

Crosstraining erakustaldia Happy Studioren eskutik, patioan.

14:00

Paellen aurkezpena epaimahaiaren aurrean eta sari banaketa, Petritegik babestua.

Irutxuloko Hitza

14:30

Bazkari herrikoia: paella erraldoia.

17:00

Giro musika txosnan.

17:30

Haurrentzako ginkana Larratxoko plazan, Altzalore aisialdi taldearen eskutik.

18:00

Kalejira herrikoia auzotik, Ilargi txarangaren eskutik. Prestatu mozorroa!

Aiton-amonentzako dantzaldia Bella Vista zahar etxean, Rafa Erentxunen eskutik.

20:00

IX. Rap Lehiaketa Larratxoko eskolan.

Afari herrikoia Larratxoko plazan: sardina eta saiheskia.

Afari herrikoia Irale patioan: bokadiloak.

22:00

Torras DJ-a, Suso eta Sanblazz eskolako patioan. Eta... Bengo taldearen kontzertua! Zatozte!

23:30

Happymusic ekitaldiak Larratxoko plazan.

00:15

Zezensuzkoa plazan.

03:30

Festaren amaiera.

IGANDEA 7

11:00

Lineako dantzak, Holidanza kultur elkartearen eskutik, eskolan.

12:00

Folk jaialdia patioan talde hauen eskutik:

- Virgen de Guadalupe
- Alborea de Aljarafe eta Zuriñe Breton.
- Duende de Semblante Andaluz.

14:30

Zikiro herrikoia Larratxoko plazan. Kafea Bar Barrioren eskutik.

16:00

Mus txapelketa Indarra tabernan.

17:00

Musika, dantzak eta *show-a* Happy Studio eta Showtimeren eskutik, patioan.

18:45

Erraldoi eta buruhandiak Sastakai txarangak girotuta, ohiko ibilbidetik.

19:00

Roberto Urrutia eta bere mariatxien ikuskizuna, Larratxoko plazan.

21:00

Jai amaiera traka.

ASTELEHENA 8

Egun osoan zehar

Haurren eguna. Feriantei esker, feriek prezio merkeak izango dituzte.

17:00

Haur txokolate jana, Irale patioan.

18:15

Sirenita musikala A.C. los Guachindanguitosen eskutik, eskolako patioan.

Errehabilitazioak

- Fatxadan isolamenduak
- Teilatu konponketak
- Zaharberritzeak
- Teilatuak

JOBILAN
KOOP ■ ELK

GIPUZKOAN, EUSKAL HERRIAN ETA INGURUKO PROBINTZIETAN.

jobilan.eus 620706936